

# Everest, munduko gailurrik desiratuena

Urtetik urtera jende-pilaketa handiagoak egoten dira Everest gailurrerako bidean, eta horrek hainbat kezka eragin ditu. Gai hori abiapuntu, ariketa hauek egingo dituzu:

- Irudiei erreparatuta, galderei erantzun, eta komentatu taldean.
- Audioa entzun ondoren, galderen erantzun egokia aukeratu.
- Testua irakurri ondoren, erantzun galderei eta komentatu taldekoekin.
- Iritzi-artikulua idatzi herri-aldizkarirako: zenbait jarraibide eta lagungarri oinarri hartuta.

## 1. Munduko gailurrik desiratuena?

Erreparatu beheko irudiei eta binaka, erantzun beheko galderei. Ondoren, komentatu eman dituzuen erantzunak.



- Zer hitz datozkizu burura irudiak ikustean?
- Honelako esperientzia bat bizi nahiko al zenuke? Nola irudikatzen duzu esperientzia hori?



## 2. Modak eta goi-mendietako turismoa

Entzun zer dioen Jabi mendizaleak Everestera igotzeko dagoen modari buruz. Ondoren, beheko galderen erantzun zuzenak aukeratu.



<https://labur.eus/V8rGk>



### 1. Zer dio kazetariak Everestera joaten diren turistei buruz?

- Turista horiek bidaia-agentziek eramaten dituzte, eta mendian ez dute esperientziarik.
- 60.000 euro edo hortik gora ordaintzen dute hara joateagatik, eta aurrez ez dute prestaketa berezirik behar izaten.
- Ia goraino helikopteroz joaten dira, eta askok ez dute gidaririk nahi izaten.

### 2. Jabiren ustez, zerk bultzatuta joaten da hainbeste jende Everestera?

- Mendia asko maite dutelako joaten dira, esperientzia berriak aurkitzeko.
- Modak bultzatuta joaten dira, eta mendirako zaletasun handia dutelako.
- Modak bultzatuta joaten dira, naturan aisialdiaz gozatzeko eredu bat saltzen digutelako.

### 3. Zer dio Jabik mendi-espedizio hauek diru-iturri garrantzitsuak izateari buruz?

- Bidaia-agentziek diru asko irabazten dute, baina Nepalgo herri xeheari ez zaio diru hori iristen.
- Nepalgo herritarrek asko eskertzen dute, beraien bizi-baldintzak hobetzen ari direlako.
- Nepalgo gobernuak diru asko irabazten du, eta beste zati bat herritarrentzat izaten da.

### 4. Zer baldintzatan joaten dira turista horiek Everestera?

- Gidariarekin eta jendez inguratuta joaten dira, eta aurrez prestakuntza jasota.
- Soka finkoekin eta oxigeno suplementarioarekin joaten dira.
- Sherpa banarekin eta aurrez prestatuta joaten dira.



### 3. Everest, munduko zabortegirik altuena

Audioan aipatu bezala, Everesten zaborrarekin arazo ikaragarria dute. Irakurri gai hori aztertzen duen erreportajea.

#### Everest, munduko zabortegirik altuena

Aspaldi honetan 'bidaia' kontsumo-produktu gisa saltzen da. Bezeroa supermerkatu erosketak egitera joan ohi den bezala hurbiltzen da bidaia-agentzietara. Erosketetarako orga hartu eta fruten edo esnekien eremuan sartu beharrian, Afrikako, Asiako edo Europako eremuetan murgiltzen da bidaia bat erosteko asmoz. Baina 'bidaia' merkatu-produktu ospetsuenetakoa bihurtu denetik, ez ote du naturan lehen baino eragin gehiago?

Turismoari buruz egin diren azken inkestek nabarmendu dute gero eta bidaiariagoak garela. 'Bidaia' produktu erakargarria eta atsegina da bidaiarientzat, baina arriskutsua bisitatzen dituzten inguruentzat. Izan ere, bidaiariak ez dira beti garbiak izaten, eta, askotan, bisitatzen dituzten gune berriak zabortegi bilakatzen ere badakite.

#### Naturaren maitale ala suntsitzaile?

Hainbat eta hainbat mendizaleren ahotan entzuten da munduko mendi handienak zabortegi itzel bilakatu direla. 1991n Mountain Wilderness" elkarteak garbiketa-espeditio handi bat antolatu zuen K2 mendira (munduko bigarren mendi altuena, 8611 metro). Mota horretako espeditioak areagotzen joan dira, batik bat, Everest, Annapurna eta Baltoro (Pakistan) bezalako haran ezagunetan.

Garbiketa-talde horiek batez beste 2 eta 3 tona-bitarte zabor biltzen dituzte. Mendi horietako bakoitzean urtean gutxi gorabehera 100 tona zabor jasotzen da. Garbiketa-kanpaina horietan sherpek ere hartu nahi izan dute parte. Everest mendia da, hain zuzen, zabor gehien biltzen den Himalaiako mendietako bat; batetik, munduko garaiena izateak erakargarri egiten du, eta urtero-urtero hamaika espeditio joaten dira hara. Bestetik, hura igotzeko material piloak behar da, eta, guztia bueltan eramatea nekagarria denez, han gelditzen da erabili eta gero.

Mendi handi horietan hainbat zaborrekin topo egin genezake, baina batez ere hauek biltzen dira: sokak, oxigeno-botilak, kanpin-denden oihalak, elikagaien paketeak, kartoizko-kaxak, kontserba-ontziak eta pilak. Ez sinestekoa bada ere, garbitzaile australiar batzuek 56.000 garagardo-botila jaso berri dituzte Everest mendian.

#### Ekonomia ala ekologia?

Argi dagoena da atzerritarrek Himalaiako mendateak hutsaren truke zikinduz gero, gobernuak azkar asko debekatuko lituzkeela espeditio guztiak. Baina espeditio-antolatzaileek mendizaleen diru-zorroak hartzen dituzte kontuan batik bat, eta ez haien kontzientzia ekologikoa edo/eta gaitasun fisikoa. Everesteko gailurrera lehen aldiz igo zirenetik mende-erdia pasatu da, eta geroztik hamaika dira gailurra edo mendi hori ezagutzeko aukera izan dutenak. Urtero 50.000 pertsona hurbiltzen dira Everestera, eta milioi-erdia mendizale Himalaiako mendikatera.

Nepalen diru-iturri nagusia turismoa da. Urtean 160 milioi dolar irabazten ditu, eta 200.000 biztanlek egiten dute lan sektore horretan. Diru-kantitate horiek handiak badira ere, Nepalen bizi diren 23 milioi biztanleetatik % 40 pobrezian bizi dira. Turismoak emandako diru-irabaziak errege-familiaren eta erresuma hinduko goi-mailako klasearen artean banatzen dituzte. Irabaziak horrela banatzeak maoisten matxinada ugari sortu du, eta 1996tik 7.000 pertsona hil dira liskarretan. Behin eta berriz eskatu dute Everestera antolaturiko igoeretatik guztira biltzen dituzten 70.000 dolarrak landaguneetako eskolak, zubiak eta klinikak eraikitzeko erabiltzeko. Hala eta guztiz, kontuan hartzekoa da turismoak kalteak baizik ez dituela sortzen.

Herri batzuetan zenbait programa jarri dira martxan egoera horri aurre egiteko. Esaterako, Amatoli programari esker Annapurnako Ghandruk eta Chomrong herrietako emakumeek festak eta kultur-jarduerak antolatzen dituzte, batik bat atzerritarrentzat. Ekitaldi horietan bildutako dirua herriak garbitzeko edo bertako biztanleak alfabetatzeko erabiltzen dute. Zoritzarrez, ordea, honelako ekimenetan biltzen duten dirua oso gutxi da dituzten behar eta gastu denei aurre egiteko.

Argi dago Nepal turismoari esker bizi dela. Naturak musu truk eskaini dizkien lur eder horiek diru-iturri bihurtu dituzte. Baina beste hainbat gune turistikok bezala apustu gogorra egin dute bisitariak eragiten dituzten kalteak kontuan hartuta. Turismoa ez kontrolatzea eta diruarekin itsutzea arriskutsua izan daiteke.

Miresgarri zaizkigun guneak une batetik bestera zapuzteko gaitasuna badugu, baina asko kostatzen zaigu berriro ere miresgarri bihurtzea, eta guztia ez dago gure gain. Natura ez ote zaigu aspertuko turistak erasoak jasaten?



Testua irakurri ondoren, erantzun idatziz beheko galderak eta komentatu taldean.

**1. Irakurri lehen bi paragrafoak. Zein da idazleak adierazi nahi duen ideia nagusia?**

.....

.....

.....

**2. Testutik zer ideia edo datu iruditu zaizkizu interesgarrienak?**

.....

.....

.....

**3. Turismotik lortutako dirua herritarrentzat izan dadin, Nepalgo zenbait herritan zer egiten duten azaldu da testuan. Ekimen interesgarria iruditzen zaizu? Ezagutzen duzu antzeko ekimenik?**

.....

.....

.....





## 4. Gure herrian ez da giro turistekin

Zure herri-aldizkarirako iritzi-artikulu laburra idaztea egokituko zaizu. Lehendabizi, irakurri beheko jarraibide eta lagungarriak.

### Egoera:

Mendiz ingurutako herri turistiko batean bizi zara, eta hainbat arazo sortu zaizkizue turista-kopurua gehiegi hazi delako azken urteotan; bereziki mendi-inguruetan eragin dituen ondorioek kezkatzen zaituzte.


### Eginkizuna:

Idatzi gaiari buruzko iritzi-artikulu zure herri-aldizkarian argitaratzeko. Bertan, adierazi zein den arazoa, eta arazo horrek zer nolako ondorioak dituen. Azkenik, arazo horri aurre egiteko proposamenak egin.

#### IDAZTEN HASI AURRETIK, erabaki eta apuntatu:

1. Zein da adieraziko duzun ideia nagusia?
2. Ideia horren alde egiteko zer datu edo ideia azalduko dituzu?
  - Mendi-turismoaren alde onak eta txarrak.
  - Turisten masifikazioaren zenbait datu.
3. Turismoaren zer arrasto edo ondorioei buruz hitz egingo duzu?
4. Irtenbideak eta proposamenak:
  - Naturaren aldeko kontzientzia zabaldu.
  - Zenbait gunetara turisten sarbideak mugatu.
  - Natura interpretatzeko ibilaldi gidatuak sustatu.

(...)



### LOKAILUAK

#### Arrazoitzeko:

Izan ere; ondorioz; hori dela eta...

#### Informazioa edo argudioak gehitzeko:

Esate baterako; hau da; batetik....bestetik; besteak beste...

#### Aurretik esandakoaren aurka dagoen zerbait adierazteko:

Baina; nolabahi ere = dena den; aitzitik; ordea; aldiz; berriz...

### ADIBIDEAK

- "Bidaia" produktu erakargarria da bidaiarientzat, baina arriskutsua bisitatzen dituzten inguruentzat. **Izan ere**, bidaiariak ez dira beti garbiak izaten, eta, askotan, bisitatzen dituzten gune berriak zabortege bilakatzen ere badakite.

- Herri batzuetan zenbait programa jarri dira martxan egoera horri aurre egiteko. **Esaterako**, Amatoli programari esker Annapurnako Ghandruk eta Chomrong herrietako emakumeek festak eta kultur-jarduerak antolatzen dituzte.

- Turista-kopuruak ondorio latzak ekarri ditu gure bizi-kalitateari dagokionez. **Batetik**, espekulazioaren ondorioz etxebizitzaren prezioak izugarri igo dira, eta **bestetik**, betiko denda txikiak, tabernak... desagertzen ari direnez herritar askok gure herrigunetik kanpo joan behar izaten dugu aisialdiaz gozatzeko.

- Egia da gure bailarako turisten kopurua hazi zenez geroztik gure ekonomiak hobera egin duela. **Aitzitik**, gorakada horrek ingurumen-inpaktu oso kaltegarria sortu du babestutako naturaguneetan.

- Aurtengo udan 328.082 pertsonak bisitatu dute gure bailara uztailean. Landa-eremuko datuak, **ordea** ez dira hoteletakoak bezain onak. **Izan ere**, landetxeetako turismoak nabarmen egin du behera.



# ERANTZUNAK

## 2. Modak eta goi-mendietako turismoa

### 1. Zer dio kazetariak Everestera joaten diren turistei buruz?

60.000 euro edo hortik gora ordaintzen dute hara joateagatik, eta aurrez ez dute prestaketa berezirik behar izaten.

### 2. Jabiren ustez, zerk bultzatuta joaten da hainbeste jende Everestera?

Modak bultzatuta joaten dira, naturan aisialdiaz gozatzeko eredu bat saltzen digutelako.

### 3. Zer dio Jabik mendi-espeditio hauek diru-iturri garrantzitsuak izateari buruz?

Bidaia-agentziek diru asko irabazten dute, baina Nepalgo herri xeheari ez zaio diru hori iristen.

### 4. Zer baldintzatan joaten dira turista horiek Everestera?

Soka finkoekin eta oxigeno suplementarioarekin joaten dira.

## TRANSKRIPZIOA

**ESATARIA 1.-** Jabi Baraiazarra, kaixo, egun on.

**JABI BARAIAZARRA.-** Baita zuri ere.

**ESATARIA 1.-** Bilbao mendi Film festibaleko zuzendaria. Eta Jabi, gaur, ia-ia ezinbestean Everestera begira jarri beharko dugu. Lehenagotik datorren dikotomia bat ahotan hartuta: alpinismoa eta goi-mendietarako turismoa.

**ESATARIA 2.-** Zeinek ez ditu ikusi aste honetan Everesteko irudiak?: tontorrerako azken metroak jendez josiak, ezin kabiturik izotz artean jendea, koloretako zamarrak jantzita. Goi-mendietako turistak dira, agentziak baitaude Everesteko bidaiak eskaintzen dituztenak, 60.000 eurotik hasi eta hortik gora. Ez da gainera, nonbait oso beharrezkoa prestaketa berezirik izatea ere. Helikopteroz eramaten dituzte bigarren kanpamenduraino, eta handik gora bakoitzak badu bere gidaria.

Goi mendi hauetako jendearen emana ulertzen ez duen asko dago, eta era berean badaude diotenak horri esker Nepalgo ekonomiari laguntza handia ematen zaiola. Eta gero, gizakiok daukagun ezin ase hori, ezta?, 8.800 metroko mendi batera joan behar dugu, agentzia batek eramanda, ez dakit zenbat mila euro pagatuta... Zer, esperientzia berrien bila?

**JABI BARAIAZARRA.-** Hala ematen du. Eta nik uste dut hemen modak, modak markatzen duela asko, ez? Bai mendian, eta oro har, naturaren inguruan aisialdia pasatzeko modelo bat saltzen ari dena, eta horren ondorioa masifikazioak, ez? Agentziekin eta gertatzen dena, bueno hemen, nik uste dut arazo ekonomiko potente bat dagoela, ez? Batez ere. Hau Nepalgo gobernuarentzako, Nepalgo herriarentzako diru-sarrera ikaragarria da. Diru-iturri potentea (indartsua) izanik ere, gero, beti bezala, holako herrietan, diru hori nora bideratzen den da asuntza. Hor dago, hor dago kokxa, ez?

Eta garbi dago hori nepaldarrek ez dutela ikusten. Hor dago zaborren, beno hondakinen arazo ikaragarria, eta hor jarraitzen du. Orduan, diru-sarrera horiek baldin badaude, bertoko jendearen bizi-baldintzak hobetzen dira? Ingurumenari zer "retorno" egiten zaion. Eta hori ez da benetan ikusten. Hor, ba, beti bezala agentziek asko irabazten dute, bai Nepalgoak eta bai, Estatu Batuetako batzuk eta Zelanda Berriko eta Australiako beste batzuk, eta beno, nik uste dut hor, hor jarri behar dela begirada, e!

**ESATARIA 2.-** Hau dena horrenbesteko jende-pilaketa Everesten gertatu da ba orain eguraldi ona dagoelako ez? Baina zer baldintzatan? 8.800 metroko mendi horretan eta horrenbeste jende bata bestearen... Hor zer bizi izan dute mendizale horiek hor?

**JABI.-** Beno, ba. Eske ezin dut imajinatu. Nik imajinatu dezaket edo behintzat gogora ekarri nire burua mendietan, ez altuera horretan, baina 5.000 metrotan, 6.000 metrotan ibili naizenean, ba zer sufrimendu dagoen, zelan eutsi egin behar zaion, baina hemen gauza garbi bat dago: jende guzti hori ez litzateke hor egongo soka fijoak (finkoak) egongo ez balira, eta are gutxiago oxigeno suplementarioa erabiliko ez balute. Eta klaro, egoera erabat ezberdina ez? Gainera, hor badago segurtasun faltsu bat bizitzen dena, horrenbeste jendez inguratuta egoteak, ba azken finean, horrekin eta oxigeno faltan zure buruan, zure adimenean sortzen duen pentsatzeko ezgaitasunak, horrek sinestarazten dizu egoera segurua batean zagozela (zaudela) eta hori ez da horrela inondik inora.

Hemen kontua da estilo edo moda hau ari dela eramaten beste 8.000ko batzuetara. Eta aurten ere udaberri honetan bertan orain aste batzuk Kangchenjunga-n 60 inguru pertsona egon dira tontorrean. Hau pentsaezina zen, orain 3-4 urte bakarrik e.

**ESATARIA 2.-** Izotzak urtuko ditugu. Izotzak urtuko ditugu eta mendiak zikinduko ere bai. Beno, bistakoa da zer irudi iristen ari zaizkigun. Katmandu munduko hiririk kutxatuena, zikinena.

**ESATARIA 1.-** Bai eta arriskuari errespetua. Horrekin geratuko gara Jabi.

**JABI.-** Arriskuari eta batez ere naturari.